BASERRIA
ETA
BASERRIAREN
EGOERA





ERROTARAN BEHEKOA

Egilea: "ANBU"

Antolatzailea: San Juan Konpartsa

2004ko ekainaren 27a

Biografia:

- Marginalización Agraria en el País Vasco (Juan Cruz Alberdi Collantes).
- Instituto Nacional de Estadística.
- Sector Agrario en el Territorio Histórico de Guipúzcoa (2002).

Laguntzaileak:

- HERNANIKO UDAL ARTXIBOA (HUA), Ondare fotografikoa.
- AGUIRRE SORONDO, Antxon.
- OSA GARZIANDIA, Angel.
- FERNANDORENA SETIEN, Hiazinto.

BASERRIA

ETA

BASERRIAREN EGOERA

HISTORIA EGIN BEHARRA

Nekazaritzaren historia Euskal Herri Atlantiarrean iraultza industrialerarte

- **Zergatik historia egin beharra?** Nekazaritzaren historia ezagutu behar da, ondo kokatu eta hemendik aurrera datorkiguna ulertzeko. Euskal Herri atlantiarrean baserria unitate autarkiko eta buruaski bat izatetik, bizi-iraun-hiltzera ohitu da, askotan industriari lotutako diru sarreren menpe. Nekazaritza eta abeltzantza naturaren ustiakuntza gisa bere horretan huts-hutsik aztertzea ikuspegi murritza da. Kultura, ekonomia, paisajea, soziologia, ekologia, eta baita erlijioa bera ere garrantzitsuak dira baserriaren eta batez ere baserritarren bilakaera aztertu eta ulertzeko.

- **Paleolotikoa eta neolitikoa:** Paleolitikoan, gizakiak harrapatzen zuena jaten zuen: ehiza, fruituak, arrainak, etab. Garai hartako gizakiarentzako natura bere gainetik zegoen, eta bera naturaren zati bat zela onartuz gurtzen zuen. Natura zen jainko: Altamira, Ekain, Altxerri, Lascaux...

  Neolitikoan, teknologien hasera dator. Animalia eta landareak etxekotzen hasten da gizakia. Natura bere menpe hasten da. Natura jainko gisa ez da nahikoa eta jainko ezezagunak asmatu behar ditu.

- **Azken bi mila urteak:** Erromatarrek eta arabiarrek nekazaritzako lur onenak bilatzen dituzte. Euskal Herri mediterranearrean aurkituko dituzte, beraien laborantzak garatzeko baldintza egokiak bait dira hemen: alekiak, olibondoa, mahatsondoa, etab. Honek merkatalguneen garapena dakar. Euskal Herri atlantiarra kaskarra da langintza hauetarako, eta itsaertzeko herriez gain barruko hirigune batzuk eta artzai herrixka sakabanatu batzuk besterik ez dira. Garia eta mahatsondoa lantzen da, etekin egokiak ematen dituelako baino erlijio betekizun bat bezala (hamarrenekoak). Aparteko aipamena merezi dute protoindustriari lotutako ustiakuntzek: meagintza (burdina, beruna, urrea, gatza, etab.), burdinolak, ikazkintza, hargintza,





SANTAGARAZI

garraioak, untzigintza, etab. Isuralde atlantiarrean nekazaritzaz gain, naturaren beste usiakuntzek ere garrantzia hartzen dute.

- **XVII. eta XVIII. mendea:** artoa iristen da Ameriketatik Euskal Herrira (kondairaren arabera, Hernaniko seme bat izan zen, Perkaiztegi izenekoa, artoaren ekartzailea), eta berak ekarriko du hurrengo iraultza. Lehen artatxikia, sagarra, gaztaina, etab. ziren baina orain artoa euskaldun atlantiarron jaki nagusi bilakatuko da. Honek nekazaritzaren zabalkunde izugarria ekarriko du. Hiri inguruetan bizi direnek baserriak eraikiko dituzte han eta hemen sakabanatuta. Garai hontakoak dira **lehen baserriak**. Gero pata-
ta ere badator, haziendak elikatzen izugari lagunduko duelarik. Honela lur gehiago landu daiteke. Protoindustrian errotak, zurgintza, karegintza, teilagintza, etab. hazten dira. Garapena, hala ere, batez ere burdinaren ustiakuntzari lotuta izango da (Orbaizeta-Baigorri-Banka, Gipuzkoa ososa, Bizkaian 150 burdinola XVIII. mende amaieran). Baserrietan bizi zirenek egiten zuten lan industria hauetan, eta beste askok Ameriketara edo klerora (herentzia sistemaren garrantzia).

- **XIX. mendearen erdialdea:** hurrengo iraultza: Garraioan eta burdinaren eraldaketan Europatik etorriko diren teknologia berriak ezartzeak izugarrizko garrantzia izango du gure paisajearen bilakaerarako, gaur egun arte. Ingelesak etorriko dira gure burdinaren bila eta paisajea erabat aldatuko da (Bizkaia osoa, Gipuzkoan: Legazpi-Mutiloa-Zerain, Amezketa, Oiartzun-Irun). Haseran burdina eraman egiten zuten, baina pixkanaka bertan osatuko da ustiapen prozedura osoa. **Iraultza industriala** iritsi da. Honek zuzeneko langileak baino inguruan langile gehiago behar zituen (etxebizitzak, garraioak, zurginak, ikazkinak, errementariak, etab.).



ELIZABURU

SARRERA





Euskal Herriko nekazaritzaren egungo egoera

- Euskal Herriko **baserri kopurua**ren bilakaera kezkagarriak sektore honen biziraupena arrisku larrian dagoela erakusten digu. Datuek larritasun bera erakusten duten edozein iturri hartuta ere. INE estatistika instituto nazionalaren arabera, Hego Euskal Herrian 1976an 92.000 baserritar egotetik momentu honetan 15.000 egotera igaro gara. Hernanin, 200 tik pasa gara 90 exkax izatera, eta horietatik 30 baserritik bizigarenak.



Joera hau are nabarmenagoa da Europako Batasunean sartu ginenetik. 1986. urtean Europako batasunean sartu ginenean, 35.000 nekazari baino gehiago zeuden Hego Euskal Herrian. Gaur egun 15.700 inguru dira, eta %60ak baino gehiagok 55 urtetik gora ditu. Urtetik urtera, baserritar aktiboen kopurua %5-10 bitartean jeisten da eta azken sei urteetan nekazaritzako lanpostuen %30 eta nekazaritza lurren %29 galdu dira.

GALDERA: Baserritarrik gabeko Euskal Herri baterantza ote goaz?

- Gure lurraldeko **paisaia**, nekazal jarduerarekin zuzen zuzenean lotuta dago. Era berean paisaiaren eraldaketa nekazaritzaren egoeraren eta bilakaeraren ispilu da.


  EAEko lurren %54 basoa da (%56 konifera, %42 hostozabal, eta %2 nahasia), eta %35 nekazaritza edo ganaderitza iharduera dutenak. Beraz lurrazalaren ia %89 baserritarrok kudeatzen dugu. Hala ere nekazaritzako lurrik egokienak gaur egun zoru bihurtuak daude: infraestrukturak, etxebizitzak, lantokiak... beharrezkoak baldin badira ere inongo lurralde antolamenturik gabe hedatu dira, nekazaritzaren etorkizuna eta gure lurraldearen jasangarritasuna auzian jarriz.


GALDERA: Euskal Herriaren itxura betirako aldatuko ote da?

- Baserri eredu tradizionala eraldaketa bortiza jasaten ari da azken urteetan. Baserri **eredu sostenigarri batetik, agroindustriaruntz** goaz. Ekoizpenaren konzentrazioa, eta ziklo naturalekiko urruntzea direlarik honen ezaugarri nagusiak. Elikagaien ekoizpenaren gehiengoa familia mailako ustiapen txikietatik baldin badator ere, izugarrizko krisia dago Europako eta mundu mailako nekazari txikien artean, agroindustria eta multinazionalek salmenta kontrolatzeaz gain, ekoizpena ere gero eta gehiago kontrolatzen dutelako. Horrela ulertzen da munduan gosea pasatzen duten pertsonen kopurua gero eta handiagoa izatea.

  Elikagaiek geroz eta bide luzeagoak egiten dituzte kontsumitzaileengana iristeko. Europako estatuek batazbeste elikagaien %50 inportatu egiten dute: kasu askotan ingurugiroarekiko eta pertsonen dignitatearekiko bortxaz ekoiztutako elikagaiak iristen dira gure sukaldeetara. Euskal Herrian bertatik bertara ekoizpena eta kontsumoa lotzeko daukagun aukera alferrik galtzen ari gara.

GALDERA: Baserritarrik gabeko elikagaien sorkuntza nahi ahal dugu?





- **Elikagaien garrantzia** gutxituz doa. Gaur egungo bizi-moldeek, kontsumo ereduaren eraldaketa ekarri digute. Errentak igo ahala kontsumo orokorraren barruan elikadurak duen garrantzia etengabe gutxitzen doa. 15 urtetan, errentaren %40 elikaduran gastatzetik %20 baino gutxiago gastatzera pasa gara. EEUUn, errentaren %7 baino ez da elikaduran gastatzen, Europako Batasunean batazbeste %14 gastatzen delarik.

  Elikagai prozesatuen kontsumoa etengabe ari da igotzen, jaki freskoena jeisten ari den maila berean. Geroz eta enpresa gutxiagoen eskutatik igarotzen dira elikagai guztiak. Europa iparraldeko herrialde askotan 5 enpresen artean janariaren %90 kontrolatzen dute. Hemen konzentrazioa horrenbestekoa ez baldin bada ere, 1992an 30 enpresek %52 kontrolatzetik, 2003an %67a kontrolatzera pasa dira.

  Elikagai exotikoen kontsumoa ere asko hazi da urte gutxitan, eta gaur egun janari gehiago prestatzen da sukalde industrialetan etxeko sukaldeetan baino. Gero obesitatea, bihotzeko gaitzak... "herrialde garatuetako" ohizko gaixotasun ari zaizkigu bilakatzen.

GALDERA: Zer jan nahi dugu? Ze preziotan? Ze kosturekin?







- Azken urteetan elikagaien inguruko **eskandaloak** egunkarietako lehenengo orrialdeetako gai bihurtu zaizkigu: transgenikoak, dioxinak, hondakinen erabilera ganaduaren elikaduran, behi eroak, sukar aftosoa edo nafarmiña...

  Gizartean sortu den kezka dela eta politikarien diskurtsoa asko aldatu da. Inoiz baino gehiago hitzegiten da kalitateaz nahi eta inor gutxi ausartzen den hitz honen esanahia definitzera. Hala ere nekazal politikak bide beretik jarraitzen du, baserritar eta gizartearen eskaerei muzin egin eta entrepresa handien interes ekonomizistak defendatuz.

GALDERA: Zer gertatzen ari da? Zergatik? Zein da arduraduna?




KRISIAREN ARRAZOIAK

Arrazoiak ugariak izan daitezke, tokian tokiko ezaugarriekin. Batzutan bizi eredu aldaketa, besteetan gehiegizko industrializazioa, edo despoblamendua..., gauza da nekazari txikiak krisian daudela, bai Hernanin, bai Euskal Herrian, bai Europan eta bai mundu guztian. Beraz arrazoi orokor eta globalak daude (politikoak) nahiz toki bakoitzean egoera berezi bat mantendu.



PITIKAR



ITURMENDI

1-.Globalizazioa Vs birlokalizazioa

Gure eskakizunak, nazio bakoitzak bere janaria ekoizteko eskubidea bermatzea, komertzio ekitatiboa, eta diru laguntzak ekoizpen kostuak berdintzeko soilik izatea dira; *Bertakoa babestu, mundu guztian.*

Munduko ekonomiaren birlokalizazioa lortzeko aurrebaldintza, globalizazio-prozesua saihestezina dela eta onuragarri bihur daitekeela dioen ustea auzian jartzea da. Era berean, funtsezkoa da alternatiba sendo eta biribil bat proposatzea, eta alternatiba horren egokitasuna, merkatuen liberalizazioak munduan eragin dituen ezeogonkortasun eta segurtasun-gabeziari aurre egiteko lagungarria den ala ez arabera epaitu beharko da.

Alternatiba honen helburu nagusia nazio eta eskualde bakoitzean ahalik eta buruaskitasun handiena lortzea da, garapen jasangarria geroz eta handiagoa dela zihurtatzeko moduan. *Bertakoa babestu, mundu guztian* lelopeko polilika aldatu egiten da herri batetik bestera, herri horietako bakoitzaren egoerara egokituz, baina bere funtsa ekonomien gaineko kontrol lokala handitzea da.

Ondoko taulan, ezkerreko zutabean globalizazioak bultzatzen duen elikadura sistemaren ezaugarriak biltzen dira, eta eskuineko zutabean berriz, elikadura birlokalizatuaren alde dihardutenek globalizazioak eragiten dituen ondorioei aurre egiteko proposatzen dituzten joerak agertzen dira:

Globalizazioaren ondorioak	**Birlokalizazioari lotutako joera**
Hirien eta herrien arteko banaketa	Hirien eta herrien bat egitea
Merkataritza bide luzeak (elikagai-kilometroak)	Merkataritza bide laburrak
Inportazio esportazio eredua elikagaien segurtasunean	Elikagaiak norbere baliabideetatik
Nekazaritza intentsiboa indartzea	Nekazaritza estentsiboa sustatzea
Aldaketak abiadura, erritmo eta neurri handian	Aldaketak abiadura, erritmo eta neurri txikian
Energia ez berriztagarriak	Energia berrerabilgarriak
Merkatuan eragile gutxi (konzentrazioa)	Eragile asko eta era askotakoak merkatuan
Kostuak kanporatzea	Kostuak barneratzea
Baserri mundua hustea	Landa ingurune bizi eta jendetsua
Monolaborantza	Bioaniztasuna
Zientzia lanaren ordez	Zientzia lanari laguntzeko
Gai agrokimikoak	Nekazaritza organiko eta jasangarria
Bioteknologia	Tokian tokiko jatorrizko ezagutza
Elikagai prozesatuak (denbora luzean irauten dutenak)	Elikagai freskoak eta galkorrak
Elikagaiak fabriketatik	Elikagaiak lurretik
Hipermerkatuak	Merkatuak eta azokak
Gaitasunak galtzea	Gaitasunak trebatzea
Estandarizazioa	“desberdintasunak” eta aniztasuna
Merkatu txokoak apaletan	Benetako aniztasuna bai apaletan bai platerean
Janaria elikadurari begira	Elikadura jendeari begira
Elikaduraren inguruko kultura zatikatu eta era askotakoa	Elikaduraren inguruko kultura arrunta
Kanpotik sortutako nahiak (publizitatearen bidez)	Benetako nahiak (kultura bidez ikasiak)
Hanburgesa estiloko jakiak hedatzea	Tokian tokiko jaki eta berezitasunak
Mikrouhin labean berotutako janaria	Sutan prestatutako janaria
Janari lasterra	Janari motela
Erabakiak mundu mailan	Erabakiak herri bakoitzean
Goitik beherako kontrolak	Behetik gorako kontrolak
Menpekotasunaren kultura	Buruaskitasuna
Osasun ezberdintasunak handitzea	Osasun ezberdintasunak murriztea
Gizarteko muturrak geroz eta urrutiago elkarrengandik, bazterkeria	Denok gizartearen barruan
Kontsumitzaileak	Hiritarrak

2-. Merkataritzaren Munduko Erakundea eta Nazioarteko Moneta Fondoa: bi adibide

MME edo OMC: Merkataritzaren Munduko Erakundea, estatuen arteko akordio komertziala da. Ikuspegi liberala gailentzen da: merkatua da gizartea antolatzen duena. 1995erarte GATT deitzen zen, eta nekazaritza 1986. urtean sartu zen negoziaketetara *Ronda de Uruguay* deitutako gailurrean. MME deritzonean, Europa eta EEBBk, munduko biztanleen %15 izanik delegatuen %60 dituzte. Alde batetik "dumping" (produktoa ekoizpen kostuak baino merkeago saltzea) debekatzen du, baino esportaziorako dirulaguntzak baimenduz dumping egitea ahalbidetzen du.

Blair-House akordioa sinatu zen, non EEBBek proteina iturri ziren landareak (soia transgenikoa), eta Europak energia iturriak (zerealak) landa zitzakeen. Behi eroen gaitza akordio honen ondorio dela esan daiteke.

Estatu guztiak derrigortuta daude, gutxienez janaren %5 inportatzera, eta orain muga-zergak kendu nahian dabiltza. Hegoaldeko herriak dira kaltetuenak, beraien nekazariei diru laguntzarik ezin dielako eman: 1992 eta 1998 bitartean 1.000.000 nekazal famili gutxiago.

NMF edo FMI: Nazioarteko Moneta Fondoak, estatuek berarekiko dituzten zorrak aprobetxatuz, nekazaritza programak jartzen ditu martxan. **Adibidez:** Merkatua liberalizatzeko neurriak 1991ean ezarri zituen Indiako nekazaritzan Nazioarteko Moneta Fondoak, 91 mila milloi dolarreko zorrari lotutako egiturazko doikuntzarako programen bidez. Zor horren herena nekazaritza industrialari lotuta zegoen: urtegiak eraiki, makinaria inportatu, pestizidak, ongarriak eta erregai fosilak erosteko erabili zen.

Programa honek hiru esportazio alor bultzatu ditu nagusiki: arrain-haztegiak, loreak eta haragia. Programaren funtsa, elikagaiak bertako kontsumorako haztetik Iparraldeko herritar aberatsek kontsumitzeko luxuzko produktuak ekoiztera igarotzean datza. Diru sarrerekin finantziatu behar zen elikagaien inportazioa.

Programa ez da ez eraginkorra eta ez jasangarria suertatu. Loreak esportatzetik jasotzen duen diru sarrerekin, hazi zitzakeen elikagaien laurden bat baino ezin du erosi merkatu globalean. Haragi esportazioarekin irabazitako dolar bakoitzeko, 15 dolar galtzen dituela Indiak kalkulatu da: ganadua ongarri organikoen eta energia berriztagarrien iturri da Indian, eta orain ongarri kimikoak eta erregai fosilak inportatu behar ditu atzerriko dibisen irteera handituz. Ganba esportazioari dagokionez, irabazitako errupia bakoitzeko bost errupiako galera eragiten du ura, bioaniztasuna, nekazaritza eta arrantzan. Ganba hazkuntza industrialaren bidez, haztegien hedadura baino 200 aldiz eremu handiagoa suntsitzen da, lur azpiko ura gazi bihurtu, itsasertzeko urak kutsatu eta nekazaritza eta mangladiak suntsituz.

3-. Europako Nekazaritza Politika Amankomuna

Europako Nekazal Politika Amankomuna, edo gazteleraz *Política Agraria Común* deiturikoa. Europako nekazal politika diseinatzea gain, mundu mailako merkatuen antolaketan ezinbesteko ardatza.

Bigarren mundu gerra amaitzean hasi zen lehenengo pausoak ematen: razionamentua zegoen eta gehiago ekoiztu behar zen. 1957rako Europak autosufizientzia lortu bazuen ere, Europar Batasunaren sorrerarekin areagotu egin ziren gehiago ekoizteko nahiak. 1960 eta 1962 bitartean, *Leyes de Orientación Agrícola* deiturikoak martxan jarri ziren.

HELBURUAK	**ONDORIOAK**
• Autonomia alimentarioa. • Merkantziak esportatzea prezio minimoetan. • Europako ekoizpenak defendatu: zereala, esnea, haragia, ardoa eta azukrea.	• 10 aldiz lanpostu gutxiago (10 nekazaritatik 1 geratzen da). • Lurzoru berean ekoizpen handiagoa lortzen da. • Erregio arteko desorekak: lautadetan zereala eta mendi aldeetan abeltzantza.

Beranduago, Marshal plana ezartzen da: Europako portuetan soia (abeltzantzan proteina iturri nagusia) inposturik gabe sartzen da. Ondorioz, portuen inguruko lurraldeek abeltzantzaren intentsifikazioa ezagutuko dute (Holanda, Belgika, Dinamarka, Bretaina...).

1992an, PACaren erreforma burutzen da GATTeko akordioetara egokitzeko. Europa munduko merkatuan leiakorra ez denez, laguntza zuzenak ezartzen dira produktuen prezioak jeisteko. Laguntzak, beti kantitateari eta bolumenari lotutakoak dira. Europako aurrekontuaren erdia doa nekazaritza gaietara: gehiago ekoizteko laguntzak, soberakinak Europaz kanpoko merkatuetan merke jartzeko laguntzak, sortutako ingurugiro arazoak konpontzeko laguntzak... Diru guztia hau "nekazari" handi batzuentzat eta industria agroalimentarioko multinazionalentzat da onuragarria, baserritar txikiei dirulaguntzekiko menpekotasuna sortzeaz gain errentagarritasun arazoak sortu baitizkie eredu produktibista honetan konpetitu beharrak.

2000. urtean, Agenda 2000 deituriko plana martxan jarri nahi da, prezioak beste %20 jeisteko helburuarekin. Bitartean, behi eroak, dioxinak, nafarmiña... eta **Fischler-en erreforma**. Fischler-ek lehenengo aldiz diskurtso aldaketa bat dakar, eskandaloak direla eta, politikoek beraien diskurtsoak baserritar zein kontsumitzaileen kezketara hurbildu bait dituzte. Dena den, erreformak lehengo bidean jarraitzen du, diskurtsoa eta praktika inoiz baino gehiago urrunduz. Honek hala ere, erreflexioari ireki behar lioke bidea:

Zer nahi dugu? Merkatuak antolaturiko gizartea edo gizarteak antolaturiko merkatua?

Zer nahi dugu? Trasnazional handien esku dagoen elikadura edo herrialde bakoitzaren elikadura subiranotasuna?

Zer nahi dugu? Bi abiaduretako kalitatea, industriala eta kalitate izendapenak, edo kalitatezko nekazaritza eredu orekatu bat?

Zer nahi dugu? Bi abiaduretako garapena, ingurumenaren txikizioa eta parke naturalak, edo inguruarekin errespetagarria den nekazaritza eredu bat?

Nekazal Politika Amankomunak premiazko moldaketa bat behar du. Erreforma honek ez du ordea nekazaritza ekonomikoki lehiakorra, ingurumenareki-ko jasangarria eta sozialki onargarria bilakatuko.


Baserritarrok laguntzapeko nekazaritzarik ez dugu nahi, gure jornala prezio duinetan oinarriturik egon dadin exijitzen dugu. Dirulaguntza banaketa sistema injustuak jarraikortasuna izanen du erreforma honekin, eta gainera, ekoiztu gabe dirulaguntzak jasotzeko arriskua dago.

Behin betiko, prezioak ekoizpen kostuetatik behera geldituko dira, gure baserriak desagertarazten eta gazteen instalakuntza eragozten. Ekoizpen indus-trialak ekoizpen ereduak zein elikaduraren kulturak inposatuko ditu, izan ere kostu bajuekin ekoizteak ezin izango du inoiz kalitatea bermatu. Kosturik bajuenak dituz-ten herrialdeetan kokatuko da ekoizpena, herrialdeen zein ekoizleen arteko ezber-dintasunak areagotuz. Eremu deserosoak, ekoizpenik gabe geldituko dira eta, ondorioz, biztanlerik eta bizitzarik gabe.

Erreforma honen helburua mundu merkataritzan lehiakorra izanen den kostu bajuko ekoizpen industriala da, nekazal eremuak bigarren maila batera baztertuz eta hirugarren sektorean kokatuz (aisialdia eta zerbitzuak).

Benetazko nekazal politika amankomuna behar dugu:

1. Ustiategien iraupena eta gazteen instalakuntza bermatzen duena.
2. Ekoizpen eta merkaturatze zirkuito motzak, hau da kalitatea zein elika-gaien segurtasuna sustatzen duena.
3. Patrimonio naturala bermatzen duen baserriaren iraupena baimentzen duena.



MONTEFRIO

4-. Bertako administrazioen politika

Bertako administrazioaren politika aldaketa bat eskatzen da, orain arte Europako politikaren jarraipen hutsa egin delako. Ez da baserritarraren lana baloratzen jakin eta ez da nekazaritza kontuan hartu duen politika orokorrik egin: lurralde antolaketa, gizartearen sentsibilizazio eta informazioari begira...

Nekazaritzarekiko sentsibilitaterik gabe jokatzeaz gain, ez da nekazaritzaren funtzio-aniztasuna, hau da, baserritarren lanaren garrantzi ekonomiko, sozial, kultural eta ekologikoa baloratu. Administrazio guztietatik bultzatu den politika produktibistak eta elitismoak (instalakuntzak, hobekuntza genetikoa, elikadura, ekoizpena...) baserritarren gehiengoa baztertu du. Gipuzkoako baserrien lur eremu eta orografiak lanpostu askotan oinarrituriko nekazaritza exigitzen digu eta azken hamarkadetan milaka lanpostu galdu ditugu. Bada garaia, gizarte eztabaida sustatu ondoren, gure herrialdean zenbat eta nolako baserriak nahi eta behar ditugun definitu eta defendatzeko.

Gure errealitatera egokitu gabeko politika egin da: errekurtsoak eta beharrak kontuan hartu ez dituena, eta laguntzak kantitateen arabera emanez produktibismoa sustatu duena. Hemen ere diru publikoaren erabilera okerra egin da, baserritarren %20ak laguntzen %80a jasotzen bait du. Laguntzek edo ordainek, nekazaritza industrializatu eta baserritarrak zorperatzeko balio izan dute askotan. Ez da kriterio sozialik egon eta ez dira modulazioa eta mendi nekazaritzetako laguntzek ezkeintzen zituzten aukerak aprobetxatu. Ekoizpena eta fondo publikoak Europako zonalde eta Gipuzkoako etxalde konkretuetan konzentratzen ari dira.

Guzti honek baserritarron ekoizpen kopuruetan geroz eta ezberdintasun handiagoak egotea ekarri du. Soldata bera ateratzeko geroz eta gehiago ekoiztu beharraren logika erabili dute administrazioek, gure ekoizpen kostuak, lan karga eta menpekotasuna areagotuz. Honek ia erabat eragozten du gazteen instalakuntza ere, eta gazterik gabe ez dago etorkizunik. Lurraren prezioak eta haseran egin beharreko inbertsio izugarriek oztopatu egiten dute sektorean hasi nahi duten gazte berrien instalakuntza.


Merkatu librearen logikaren gainetik, nekazaritza herrialde guztietan sektore estrategikoa dela ulertu behar da, nekazaritzarako eremu erosoa izan edo ez izan. Diru laguntzak asko ekoizten dutenei gehiago ekoizteko eman zaizkie, eredu honetan ekonomikoki konpetitiboak ez izan arren, eraginkorrak, efizienteak, produktiboak eta sozialki beharrezkoak diren baserriak mantentzeko baizik.

Eraman den “kalitate” politikak bertakotasuna bermatu du benetako kalitate integralaren aldeko apostua egin beharrean. Sektorearen partehartzea oso txikia izan da jatorri izendapen, label, IGP eta bestelako izenduretan, kasu askotan produktuari balio erantsia emateko balio izan ez duelarik.

5-. Ekoizpen eta kontsumo ereduen aldaketa azkarra

Azken urteetan gure bizi eredua, kontsumo eredua, gizarte eredua... erabat aldatu dira oso denbora gutxian. Baserrian ere aldaketa hauek izan dute beren era-

gina: teknologiak, konpetibitateak, administrazioetatik bultzatu den aipatutako politikak eta kontsumoaren aldaketek erabat baldintzatu dute baserritarren ofizioa.





Lehenago ekoizpen guztia eredu bakarrean egiten bazen ere (antzeko ganadu, labore eta lur kopuruak, antzeko teknologia, antzeko salmenta eredua...) gaur egun ezberdintasun geroz eta handiagoak aurki ditzakegu zonalde berdineko baserrien artean.

Baserriaren egoera gizarte osoaren arazoa bada, zer baserri eredu behar dugun definitzea ere denon kontua da: baserritar produktibista, baserritar multifuntzionala, behar da baserritarrik?... Baserri ereduaz, salmenta ereduaz, lurralde antolaketaz ari garenean gizarte ereduaz ere ari gara hitzegiten. Lehenago teknologiak ekarri zuen aldakuntza orain bioteknologiarekin omen dator berriz ere. Nahi dugu transgenikorik Euskal Herrian? Hona hemen laburki gaur egun aurki ditzakegun ekoizpen eta salmenta eredu ezberdinak eta transgenikoei buruzko erreflexio bat.

Ekoizpen ereduak:

Nekazaritza eredu bakoitzari lanerako prozedura zehatza dagokio. Eredu bakoitzak funtzio aniztasun ezberdina dauka. Euskal Herriko baserri gehienak lurrari lotuta lan egiten badute ere, eredua asko ari da aldatzen urte gutxitan teknologiaren, produktibitatearen eta espezializazioaren ondorioz. Baserritarrak historikoki bete izan dituen funtzio ekologiko eta sozialak gutxitzeko joera dago berau behar bezela ez baloratzearen ondorioz. Gaur egun bi tendentzia nagusi bereiztu ditzakegu:

LURRARI LOTUTAKOA	EKOLOGIKOA
	KONBENZIONALA
LURRIK GABEKOA	KONBENZIONALA
	AGROINDUSTRIA

Agroindustria: baserritarrik behar ez duen eredua. Funtzio bakarra elikagaiak sortzea.

Konbentzionala: bi muturren arteko baserri kopuru andana. Multzo honetan iharduera tradizionalari eutsi diotenak, eta teknologiari esker produkzioa emendatzea lortu duten baserrien gehiengoa.

Ekologikoa: lurrari lotutako, eta ingurumenaren zikloak errespetatuz egindako nekazaritza eredua. Euskal Herrian erlatiboki berria bada ere, hazkunde handia ezagutzen ari dena, bere kalitate, errespetu eta edukin sozialagatik.

Lurrari lotutako nekazaritzaren arazo nagusietako bat lurraren galera etengabea. Bigarren etxebizitzak, azpiegitura handiak (AHT, Autobideak, industrialdeak...) inoiz baino gehiago egiten dira behar gutxiago egon arren. Lur eremu emankorrak pinuz jazten ari diren bitartean, aldatzak larretu ezinda gabiltza. Benetako **lurralde antolaketa baten premia** inoiz baino nabariagoa da.

Etorkizunean, garrantzitsua izango da lurrai lotutako nekazaritza aurrera ateratzeko gure produktuenganako kontrola areagotzea, hau da, sortzaile izateaz gain eraldatzaile eta saltzaile ere izatea. Gure ekoizpenak ezberdindu eta balio erantsia izatea beharrezkoa da, eta horrek gertuko kate komertzialak eskatzen ditu, ekoizle eta erosleen arteko erlazio zuzena berreskuratzea.

Gai honetan ezinbestekoa da gizartearekin hautsita dauzkagun zubiak berreraikitzea. Baserritarren esfortzua eskatzen du, baina kontsumitzailearen konzientziazioa eta jarrera aktiboa ere ezinbestekoak dira. Administrazioari berriz bide hauen baliogarritasuna ikusarazi behar zaio, kontsumitzaileari eta baserritarrari kalitatezko ekoizpenak egin eta kontsumitzeko ematen dion aukeragatik. Urte askotan salmenta zuzenerako jarri izan diren trabek kalte handia egin diote gure lurraldean tradizio handia izan duen salmenta ereduari.

Aktualitateko gaia: Transgenikoak, ingenieritza genetikoa eta nekazaritza

Eredu aldaketa bortitz honetako azken adibidea baino ez da. "Transgeniko" hitza hitzetik hortzera dabil urte hauetan. Elikadura eskandaloen testuinguruan kontsumitzailea mesfidati azaltzen da ingenieritza genetikoen asmakizun berrien aurrean.

Transgenikoekin iraultza dator lehenengo sektorera. Nekazaritzako ihardue-ra tradizionalean barietate eta arraza berriak urteetako lanaren ondorioz lortzen ziren. Laborategian burututako informazio genetikoaren eraldaketa tekniken bidez, barietate eta animalia espezie berien sorkuntza hilabete gutxien emaitzan izan dai-teke.

Izaki bizidun guztion heredentziaren trasmititzaile diren geneen manipulazio eta transferentzia bidez, besteak beste estanterietan luzaro iraun ahal duten toma-teak, Hazkuntza azkarreko izokin erraldoiak, eta beren ehunetan izurriteen aurka toxina bereziak jariatzen dituzten artoak garatu dituzte.

Baina zeintzuk dira iraultza honen **ondorioak**? Nekazari batzuen eta batez ere agroindustriaren etekinak handitzen diren heinean eragin kezkagarriak ez dira gutxiago:

- Ingurugiroaren kutsadura genetikoa.
- Osasun arazoak: alergiak, antibiotikoekiko erresistentziak.
- Izurrite eta "belar txarren" erresistentziak.
- Nekazari txikien desagerpena.





Salmenta eredua: prezioa, kalitateta eta distribuzioa

Ekoizpen ereduetan bezalaxe, salmenta ereduetan ere aldaketa handia eman da azken urteetan. Azalera handietan konzentratu da salmenta kopuru handiena, eta horien artean baita elikagaiak ere. Salmenta eredu hauek, beste eragin sozial batzuez gain, baserritarren dependentzia handitzen dute, jakiak edozein tokitik ekar ditzaketelako, nahi duten prezioa ordaindu eta nahi dutenean alboratuta utzi. Baserritarrak ekoiztutako produktuarenganako kontrola galdu du berau saltzerakoan, baina baita kontsumitzaileak ere erosten duen produktuaren gainekoa. Gehienetan kalitate eskaseko produktuak dira, eta prezioak bajuak izaten dira konpetentzia egitea komeni zaien artean (gaur egun barazkiak merkeago daude komertzio txikietan azalera handietan baino).

Beraz salmenta edo distribuzio ereduak kalitatea eta prezioa kondizionatzen du. Hiru puntuak elkarrekin oso erlazionaturik daude: prezioak zerikusi zuzena du kalitatea eta distribuzio ereduarekin. Era berean kalitatea erlazionatuta dago ordaintzeko prest gauden prezioarekin, eta nola ez distribuzio ereduarekin. Distribuzio ereduak beraz, bai produktuaren kalitatean eta bai bukaerako salneurrian (ez baserritarrari ordaintzen zaion prezioarekin) izango du eragina.

Prezioa: ezartzen diren prezioak baserritar zein kontsumitzailearentzat egokia izan behar badu, ezinbestekoa da merkaturatze bide laburrak erabiliz bitartekariek ahalik eta irabazi gutxien izatea. Azken ikerketek diotenez, ohizko merkatal bideetan dabiltzan elikagai konbentzionalek batazbeste %300eko igoera jasaten dute (kasu batzutan %1000 baino gehiago) ekoizleari ordaintzen zaionetik kontsumitzaileari kobratzen zaionera. Bide horretan baserritar zein kontsumitzaileok esfortzu bat egin beharko dugu hau horrela gerta ez dadin.

Kalitatea: "kalitatea" asko eta gaizki erabili ohi dugun hitza da. Gusto onekoa, itxura onekoa, osasuntsua, bertakoa, kalitate etiko, biologiko eta soziala... Zer da kalitatea? Zeri eman nahi diogu garrantzia? Produktuaren kalitatea baloratzeko garaian ezinbestekoa da produktuaren bide guztia ezagutzea, eta kontsumitzailea produktuaren atzean dagoenaz jabetzea.

Distribuzioa: Distribuzioak bai kontsumitzaile zein baserritarraren komoditatea, bai kalitatea (freskotasuna, konfiantza...), bai prezioa eta produktuaren gainean daukagun informazioa kondizionatzen ditu. Distribuzio ereduaren arabera, asko alda daiteke baserritarrari ordaintzen zaion eta kontsumitzaileari kobratzen zaion prezioen arteko diferentzia. Bai komoditatea eta bai kalitatea ordaindu egin behar dira.

Kontrol eta konfidantza gehien eskaintzen duen salmenta eredua ekoizleak eta kontsumitzaileak elkarrekin harremana izan edo elkar ezagutzen dutenekoa da: merkatuak, azokak, etxez-etxeko errepartoak berreskuratu beharreko ereduak dira, eskein dezaketen kalitate, prezio eta gertutasunezko zerbitzuagatik. Europa Iparraldeko herrialdeetan galdu ondoren berriz errekuperatzen ari diren ereduak dira, eta Euskal Herriak duen jendetzak eta komunikazio posibilitateek ate interesgarri bat erakusten digute.

HERNANI ETA INGURUKO BASERRIEN EZAUGARRIAK



ARRIATSU

Donostia hurbiltasunak baldintzatu egiten du hiri inguruan halako ustiakuntza mota berezia izatea.

Donostia eta inguruko herriek, elkarrekin, hiriaren jarraipen bezalako zerbait egiten dute hurbileko haran eta korridoreetan barna, hiri nagusiari osotasuna emanez. Espazio honetan, 375 km^2 hor nonbait, bizi dira Gipuzkoako populazioaren bi herenak, batez besteko bizt./km^2ko mila biztanle gaindituz.

Alabaina, hiri giro hori, behin hiri barnetik 50 m.ko garaiera helduz gero, baserri giroa jabetzen da espazio honetaz, baserriak hartzen duelarik azalera honen %80a. Hiriaren mugatik ez urrun, eta 200 m.ko garaiera iritsiz gero, argi ageri dira baserrietako nekazari eta abeltzaintzako lanak.

Donostialdea-Bidasoa eskualdeak zailtasun bat du berekin lehenaz gain euskal baserriarentzat: hiriaren presioa. Ikus dezagun hiriaren hurbiltasunak Donostialdeko baserriari halako eredu jakin bat zergatik ezartzen dion. Esan gabe doa berdintsua izango dela lurralde guztian baserri eredua, baina prozesu mugatu eta azkarragoak dauzka hemen, hiriaren hurbiltasunagatik.

Ustiakuntzen erregistroak eskaini datuak kontuan hartuz gero, zera ikusten dugu eskualde honetan, antzekoa dela baserri-unitatearen eredua, baserri ororen antzekoa. Hala ere, aski argiak dira bertan berezitasun batzuk, probintziako hiri nagusiaren eragina erakusten dutenak, beste zenbait hiriren inguruetan gertatzen den bezalaxe.

Baserriaren jabetza (8 Ha.), adibidez, gutxi-asko onartutzat ematen den arren, aski apalagoa da hemen, lurraldeko baserriekin (13 Ha.) konparatuz gero, hiriak eta bertako populazioak ezartzen duten presioagatik.

Erabilpenen artean larre eta basoen ustiakuntza ageri zaigu lehen mailan, nahiz eta hauen hedapena ez den hain handia (%31), lurralde osoan %55 delarik espazio ustiatua. Are gehiago, UTA 1 (gutxienez lanpostu 1) saileko ustiakuntzen artean heren bat ematen zaio basogintzari, eta bien bitartean %70 hartzen du honek Gipuzkoaren baitan. Egoera honen arrazoia, besteak beste, gainerako eskualdeek baino erliebe egokiagoa izatean datza, baina baita ere basogintza baztertuago izatean, hirigintzak lurraldea asko mugatzen duenez. Esan behar da, basogintzari buruz egin den inbentarioaren arabera, pinuak esaterako lehen zeukan azaleraren heren bat galdu duela hamarkada bakar batean.

CARACTERÍSTICAS DE LAS EXPLOTACIONES DE DONOSTIALDEA				
	<1 UTA	1-2 UTAs	>2 UTAs	TOTAL
NÚMERO DE EXPLOTACIONES	1.132,0	293,0	124,0	1.549,0
SUPERFICIE TOTAL	4.370,1	3.675,1	4.472,7	12.517,9
SUP. EN ARRENDAMIENTO	251,8	613,8	1.040,2	1.905,8
SUP. COMUNAL	301,8	423,5	421,0	1.146,3
OTROS REGÍMENES	328,1	469,9	414,2	1.212,3
SUP. EN PROPIEDAD	3.470,1	2.140,4	2.549,8	8.160,4
CULTIVOS FORRAJEROS	2.374,4	2.503,2	2.489,3	7.366,9
SUPERFICIE CULTIVADA	197,8	165,3	61,5	424,6
FORESTALES	1.527,2	810,2	1.807,3	4.144,8
UTAs/TITULAR	0,4	0,8	0,8	0,5
UTA/EXPLOTACIÓN	0,6	1,4	1,9	0,9
MARGEN NETO/EXPLOTACIÓN	1.051,1	6.178,3	27.381,0	4.128,7


Fuente: Registro de Explotaciones Agrarias. DFG. 2003. Elaboración propia.

Baserri hauek erabiltzen dituzten jabetzako lurrek ere kopuru aski apalagoa erakusten dute (%63, %83arekin alderatuz) eta garrantzi handiagoa dute errentan harturiko lurrek eta bestelakoek, nekazaritzarako diru-trukerik gabe laga ohi direnek.

Beste berezitasun bat, baratzegintzak daukan garrantzia da, eskualdeko baserritarren %11 hartzen duelarik. Lur hauek hain ugariak ez diren arren, abeltzaintza eta basogintzarekin alderatuz, eskualde honetako baratzek Gipuzkoa osoko baratzen heren bat egiten dute. Hiriaren hurbiltasunak gerriko bat bezala eragiten du baratza unitatez osatua, gero mozkinak bertako merkatura garraiatuko direlarik. Ustiakuntza mota profesionalizatu honek ezaugarri beretsuak ditu lurralde guztian zehar, hau da, baratzezain profesionalen taldeetan elkarturik daudela, osoki bi pertsonaren lana eskatzen duela baratzako lanak, esnearen ekoizpen intentsiboak dakartzan etekinen parean dabilela eta baserri lurraren %25, 2Ha. hartzen dituela berekin.

Hiri inguruko zonalde hauek ohikoa dute, bereziki Kantauri hegi honetan, esnearen ekoizpena, egunero hurbileneko merkatura esnea zerbitzatuz. Gaur egun, Donostiaren ingurumena aintzat hartzen badugu, erabat desagertu dela esan behar lehengo esne zerbitzu hura, zeren eta zentralera baitoa orain esne produkzio ia guztia. Hala ere, Gipuzkoako beste eskualdeetan baino gehiago ikusten da lehengo zuzeneko salmenta, bereziki txikiagoak diren ustiakuntzen kasuan. Oraindik ez dira gutxi 4 behi dituzten ukuiluak eta 65 urte izan arren erretiroa hartu ez duen baserritar jendea. Berebat, aipagarri zaigu nola azkartzen joan diren 50 buruz goitiko ustiakuntzak, nahiz eta 20 Ha. azaleratik %45 gertatzen den soilik jabetzakoa.

Gainerakoan Donostia inguruko ustiakuntzak, dedikazio mailaren arabera, ez dute berezitasun nabarmenik lurralde osoko besteen parean. Ekintza hau baztertzeko joera ageri den arren, nekazal sektorea oro har berdintsua da lurralde osoan zehar. Donostialdeko nekazal unitateek ez dute produkzio eredu berezirik baina, bai, badituzte halakoxe berezitasun jakin batzuk.



TEILERI ZAHAR

Legearen aurkako LZP bat, bertan behera utzi eta berria behar da

LZP honen izaera demokratikoaren eztabaida alde batera utzi gabe, esan behar da baita ere dokumentu hau **Lurralde Antolaketako Artezpideen aurkakoa** dela, izan ere arau honek agintzen dizkion zenbait xedapen ez dira errespetatuak izan. Legearen arabera, lurraldea antolatzen duen edozein tresnak, hasi LZPtik eta bukatu udal hirigintza arauetan, nekazaritzarako lur onenen inbentarioa egin behar du eta ondoren hoiek babestu. Ba, hemen ez da inbentariorik egin eta are gutxiago babestu. Arrazoi honek nahikoa behar luke dokumentua bertan behera uzteko.

Badaude arrazoi gehiago, hemen zerrendatzeak luze joko lukelako ez ditugunak aipatuko, baina beste pintzelada bat agertzearren honako hau esan daiteke: Lurralde Antolaketaren egiteko bat lurralde arteko deskonpentsazio demografiko, ekonomiko, eta abarrak ekilibratzea bada, planak ez du batere funtzio hori betetzen. Gipuzkoako zonalde populatuena bada jadanik, eta egin beharko litzatekeena da lurraldeko beste zonaldeei biztanlegorik kenduko ez dien antolaketa bat diseinatu, beste eremu funtzionaletan ere dotazio desberdinak eskainiz. Aitzitik, garbi ikusten da dokumentua irakurrita, Donostialdeko eremuaren garapen nahiko bortitza aurrikusten dutela, etxebizitza eskaintza handituz, enpresei lurra eskurra jarriz eta garraio zerbitzu garrantzitsuak eraikiz. LZP hau dagoen bezala onartzen bada, etorkizunean sostengaitza den eredu baterantz joko dugu, beste eremuetako biztanlegoak bertara migratzea suposatuko duelako, Gipuzkoako lurraldea erabat desekilibratuz.



DONOSTIALDEKO LURRALDEAREN ZATITAKO PLANA

Eusko Jaurlaritzaren Plan honek nekazaritzaren akabera suposa dezake

1997tik Eusko Jaurlaritzak Lurralde Antolakuntzako Artezpideak (gazteleraz, DOT bezala ezagutuak) onartu zituenetik, Guipuzkoako lurraldea sei eremu funtzionaletan banatua gelditu zen. Eremu funtzional hoietako bakoitzak xehetasun handiagoko antolaketa dokumentu bat behar zuela finkatzen zuen Lurralde Antolaketako 1990eko Legeak, eta horrela, dokumentu hoietako bakoitza izango da, onartzen denetik aurrera, lurralde horretan egin daitezkeen aktuazio urbanistiko eta erabilera desberdinen marko orokorra.

Udaletxeentzat, bete beharrekoa

Lurraldearen Zatikako Planak (gazteleraz, PTP) indarrean sartzen direnetik eremu horretako udaletxeak nahitaez betetzera derrigortuak daude, beraien udal hirigintza araudia egokituz.

Gipuzkoan oraindik LZP bakar bat ere ez da onartua izan, eta Donostiakoaren kasuan, Irundik Andoainerainoko eremua hartzen duena, oraindik aurrerapen fasean aurkitzen da. Baina oraindik onarpen prozesuaren haseran badago ere, jadanik jendaurrean jarritako dokumentuak gabezi ikaragarriak ditu, etxebizitza proiekzio nahiko zalantzazkoarekin batera, izan ere datozen 12 urteetan **300.000 etxebizitza** berri egitea proposatzen bait du.

Etxebizitzekin batera azpiegitura asko, industrialdeen zabalpena eta berrien sortzea, eta babestutako zonaldeak zehazten ditu, batipat Aiako Harriko Parke Naturala (jadanik izaera hori lortuta daukana), eta kostaldeko zenbait gune.



Nekazaritza desagertua, ez da ageri dokumentuan

LZP honi begiratuz, nekazaritza bezalako jarduera bat bigarren mailan gelditzen da, Landa Garapeneko Legeak aitortzen dion izaera estrategikoa guztiz ahaztuz. Honela, gaur egun nekazaritzak bizi duen atzerakada ikusita, eta elikagaien "merkatuen" mundu mailako eraldaketa bortitza pairatzen ari garenean, euskal baserrientzat bertako administrazioak lurraldean diseinatzen dituen politikak, interes desberdinen arteko borroka fronte bat iriki du. Interes desberdin asko daude lurraren, edo beraien hitzak erabiliz, lurzoruaren atzean: etxebizitza berriak (dentsitate baxukoak, askotan. Hau da, adosatuak edo txaletak); industria eremuak; errepideak, abiadura handiko trena, energia azpiegiturak, ...; turismoarentzako azpiegiturak; ...



SORGINTXULO


Tendentzia orokor hau Donostialdeko LZPak aratago ereman du, mantendu ezezik, **bailara fondoetan eta %20 baino gutxiagoko aldapak dauden tokiak sistematikoki okupatzea proposatzen bait du**. Edo beste era batera esanda, aipatu ezaugarri hoiek dituzten tokiak, denak okupatuak agertzen dira planoetan, eta nekazaritza ez da aipatu ere egiten erabilera guztiak kokatzeko garaian.

Honekin esan nahi dena da Donostialdean soilik mendi-aldeko nekazaritza edo ganaderitza bakarra geratuko dela, eta agrologikoki dauden lur eremu goxoenak, barazkigintzarako oso egokiak eta kalitate altuko barazkiz hornitzen gaituztenak, desagertu egingo direla.

Gizartearen partehartzea

Beraz, denon lana da etorkizuna nolakoa nahi dugun zehaztea, Lurralde Antolaketa egoki batek sekulako garrantziaz ohartzen bagara. Erabaki hain potoloen aurrean, ez luke nahikoa behar lau urtez behin politikoei ematen den botoa. Aitzitik, gizartearen babes zabalagoa eskatzen du hainbeste generazio hipotekatuko duen horrelako erabaki batek.

Partehartze zabalagoa edukitzeko, lehenengo administrazioak informazio zabaldu behar du gizartean eta gero horren **eztabaidarako aukerak edo foroak eskaini**. Eztabaida honen ondoren, kontsentsu zabalak ematen diren heinean lantzen joan behar da nolako lurraldea nahiko genukeen eta zein ereduaren araberakoa. Eztabaidaren emaitza izan behar da.


DONOSTIA-
SAN SEBASTIAN
IBAETA
IGARA
AMARA
MIRAMON
AÑORGA
REKALDE
2.
HERNANI
ASTI
ERGOBIA
ZIKUÑAGA
URNIETA

RED DE CARRETERAS

RED GENERAL DE ACCESIBILIDAD EXTERIOR

RED DE DISTRIBUCION PRIMARIA

RED PRINCIPAL DE ACCESIBILIDAD LOCAL Y
NUEVAS PROPUESTAS DE VIALIDAD URBANA

RECONVERSION A EJES URBANOS
DE TRAMOS DE LA RED GENERAL ACTUAL

RED FERROVIARIA

RENFE Y EUSKOTREN

PROPUESTA DE NUEVAS ESTACIONES Y TRAZADOS

TRAZADO ALTA VELOCIDAD

ESTACIONES ALTA VELOCIDAD

RED DE ITINERARIOS BLANDOS COMO EJES ESTRUCTURALES DEL MEDIO URBANO

CONFIGURACION DE UNA RED DE ITINERARIOS DE MOVILIDAD
PEATONAL PRIORITARIA COMO EJES ESTRUCTURANTES Y
REFERENTES ESPACIALES DEL PAISAJE URBANO

ZONIFICACION INDICATIVA PARA LAS AREAS DE NUEVA EXPANSION URBANA

DELIMITACION DE LOS AMBITOS TERRITORIALES
QUE EL PTP CONSIDERA ESPACIOS SUSCEPTIBLES DE
ALBERGAR NUEVOS CRECIMIENTOS URBANISTICOS

DESARROLLOS RESIDENCIALES Y DOTACIONALES
DE ALTA DENSIDAD, LOCALIZACION PREFERENTE
DE OPERACIONES DE V.P.O.

DESARROLLOS RESIDENCIALES Y DOTACIONALES
DE MEDIA DENSIDAD

DESARROLLOS RESIDENCIALES Y DOTACIONALES
DE BAJA DENSIDAD

AREAS PARA ACTIVIDADES ECONOMICAS Y
PARQUES EMPRESARIALES

PARQUES PERIURBANOS, ESPACIOS LIBRES Y
AREAS DEPORTIVAS DE ESCALA COMARCAL

RESERVAS CON CAPACIDAD DE ACOGIDA PARA
FUTUROS DESARROLLOS URBANISTICOS
DE BAJA INTENSIDAD Y USO SIN DEFINIR

HERNANIKO BASERRI EGOERA

BASERRIA	EGOERA
BALANTXA	Sagardotegia
BUSKANDO	Bukatzen
ETXERREAGA	Bukatzen
ITURMENDI	Bukatzen
LARRABIDE	Bukatzen
SAGASTIA	Bukatzen
SAGASTI -TTIKI	Baratza
KARAPOTE	Bukatzen
OKENDO - ENEA	Bukatzen
ARRIETA	Bukatzen
ARRIETA	Bukatzen
ORKOLAGA	Esnea
BERAKORTE	Barazkiak
BIDAURRETA	Bukatzen
EKOGOR	Ardiak
ESTUBEGI	Bukatzen
ESTUBEGI - BERRI	Bukatzen
ILARRETA	Bukatzen
ANTON - ENEA	Bukatzen
ANTON - ENEA	Bukatzen
ARKAIZPE	Bukatzen
ARKAIZPE	Bukatzen
BARKAIZTEGI (BARRIOLA)	Bukatzen
BELASKO - ENEA	Barazkiak
BELASKO - ENEA BERRI	Bukatzen
ETXEBERRI	Bukatzen
GALARMENDI BEHEKOA (GANAGORRI)	Esnea eta barazkiak
GALARMENDI BEHEKOA - ERDIKOA - (TXANETENE)	Barazkiak
GALARMENDI GOIKOA (PANAGORRI)	Bukatzen
ILARRATSUETA	Larre behiak
IZOZTEGI	Bukatzen
IZOZTEGI	Bukatzen
LOPETEGI	Bukatzen
PITIKAR	Bukatzen
PITIKAR	Bukatzen
ZABALO - ENEA	Esnea
ZELAIARTE	Bukatzen
ZUBILLAGA - ENEA	Bukatzen
AGERRE	Eukatzen
ARRIGOAIN	Bukatzen
MARIELUTS - TTIKI -	Baratza
ARIZTEGI	Bukatzen
ERRATZU	Bukatzen
SANTSANATEGI	Bukatzen
TURKO - ENEA	Bukatzen
AÑOA	Ardiak

AÑOA . . . . . .Ardiak
TEILERI - ZAHAR . . . . . .Ardiak eta makinak
ALTZUETA . . . . . .Sagardotegia
ALTZUETA . . . . . .Barazkiak eta loreak
ARRIATSU . . . . . .Behi granja
BORTOLUA - ENEA . . . . . .Bukatzen
BORTOLUENE BORDA (TXABOLATEGI) . . . . . .Bukatzen
ELORRABI . . . . . .Sagardotegia
ELORRABI - GOIKOA - . . . . . .Bukatzen
ERROTARAN - GOIKOA - . . . . . .Bukatzen
ERROTARAN - ERDIKOA - . . . . . .Bukatzen
ERROTARAN - BEHEKOA - . . . . . .Erorita
IPARRAGIRRE . . . . . .Sagardotegia
ITSASBURU . . . . . .Sagardotegia
LEPA - TTIKI - . . . . . .Esnea
OTSUA - ENEA - . . . . . .Sagardotegia eta behi bereziak
SAROBE . . . . . .Behiak
TOLARETA . . . . . .Bukatzen
TXONKUA - ENEA . . . . . .Bukatzen
TXONKUA - ENEA . . . . . .Bukatzen
AÑARREGI . . . . . .Bukatzen
LASTAOLA - GOIKOA - . . . . . .Bukatzen
MONTEFRIO . . . . . .Behiak
OKENDO - ENEA - . . . . . .Esnea
OKENDO - ENEA - . . . . . .Esnea
TXABOLA . . . . . .Bukatzen
USATEGIETA . . . . . .Bukatzen
ARBELAITZ - ENEA - . . . . . .Bukatzen
EPELE - ERROTA - . . . . . .Bukatzen
AKOLA . . . . . .Bukatzen
ALKATXURAIN . . . . . .Bukatzen
EREÑOTZU (TXILIBITA) . . . . . .Baratza
IZENEDER . . . . . .Bukatzen
LARRE - GAIN . . . . . .Sagardotegia eta larre behiak
SAHATSAIN . . . . . .Bukatzen
TXABOLATEGI . . . . . .Bukatzen
APARRAIN . . . . . .Bukatzen
ETXOLA - BERRI . . . . . .Bukatzen
TXIMISTA - ENEA . . . . . .Bukatzen
PERROPA . . . . . .Bukatzen
TXINTXU - ENEA - . . . . . .Bukatzen
ARGINDEGI . . . . . .Esnea
MAIOLASKOA . . . . . .Ardiak
OIANEDER . . . . . .Bukatzen
OIANEDER . . . . . .Bukatzen



MARIELUTS

ORONA


Igogailuak
Eskailera Mekanikoak
Egitura Espazialak

Orona Koop. Elk.
Lastaola Industrialdea. 20120 Hernani
Tel.: 943551400 - Telefaxa: 943550047

HERNANIKO UDALA

HATOR Seguros
Asesoría
Kardaberaz, 60 - HERNANI - Tf. 943554312
Fiscal
Laboral
Contable
Administrativa

ZULAICA
ASESORIA
Cardaveraz, 68
20120 HERNANI
Tels. 943551494 - 943551912
Fax 943551130



PUTZUETA
HARATEGIA - URDAITEGIA
Aita Kardaberaz Kal[illegible] 39 -Tel.: 943 552 787
HERNANI

ARALAR
TABERNA

brintza
LAN A[illegible]RITZA
AHOLK[illegible]ZA FISKALA
ASEGURUAK. INBERTSIOAK
MAPFRE
Juan de Urbieta, 15 - HERNANI
Tel. 943 331 267 - Faxa 943 330 892
Harriberri, 9 - ALTZA (Donostia)
Tel. 943 352 794 - Faxa 943 353 379

OINDI taberna
NAGUSIA, 25 HERNANI 943 557 509

ELECTRODOMESTICOS
ANEXO
ETXETRESNAK
Izpizua, 21
Tel. 943550381 - Faxa 943335907
HERNANI
Juan Bautista Erro, 2
Tel. 943591558
ANDOAIN

Carrocerías KEPA, s.l.
Chapa y Pintura - Bancada Universal
Cabina Horno
B.º de la Florida, 56 · 2ª Planta, Local 33
Tel. 943 550 404 - 20120 HERNANI